



# BEZEROAREN KIKO BEZEROAREN KIKO HARRERAMA HARRERAMA

Hasieran, bezeroak erakartzeko eta haiengandik hurbilago egiteko, Instagram kontu bat irekiko dugu. Gaur egun, sare sozialak duten garrantziagatik eta gure bezero nagusiak gazteak izango direnez, gure uste apalean Instagram sare soziala gure bezeroengandik hurbilago sentitzeko eta hasierako publizitatea egiteko modurik ezin hobea da.



Ildo beretik, Emakunde eta Andrak Leioa erakundeekin egindako aliantzak direla eta, publizitatea egiteaz gain, haien bezeroak erakartzea lortuko dugu eta horretaz aparte guk sortutako aplikazioa nolabaiteko fidagarritasuna eta segurtasuna helaraziko die, gainera horrek gure proiektua Euskadi mailan zabaltzea ahalbidetuko luke.

Gure asmoen artean ere ikastetxe desberdinetan genero indarkeriaren inguruko saioak antolatzea da gure aplikazioaren aurkezpenarekin batera. Saio hauek gure bezero segmentura zuzenduta egongo dira eta aplikazioaren erabiltzaileak lortzeko bide ezinhobea dela uste dugu.



Noticias de Bizkaia

Deia

Beste alde batetik, hainbat egunkariekin harremanetan jarriko gara gure aplikazioa bertan iragartzeko. Esate baterako, "Deia" izeneko egunkariekin elkarrizketa bat hitzartuta dugu.

Baina, nola mantenduko ditugu erabiltzaile hauek? Gure helburu nagusia kalitatezko zerbitzua eskaintzea da. Horrela erabiltzailea aplikazioa deskargatuta izatearen onuraz jabetuko da, erabiltzailea izaten mantenduko da eta bere inguruko lagunartekoei ere aplikazioa gomendatuko die, hau izanik erabiltzaile berriak lortzeko beste bide garrantzitsu bat.

Gure aplikazioa internet bidez izan arren, bezeroekin harreman zuzena edukitzean saiatuko gara eta horrek segurtasuna eta aplikazioarekiko konfiantza handitu da erabiltzaileak fidelizatuz.